

Titulua

steilasek eskatzen dio Hezkuntza Sailari HEZIBERRI bertan behera uztea.

*EAEko Hezkuntza Sailak Derrigorrezko Hezkuntzarako dagozkion curriculum dekretuak plazaratu ditu EHAAn urtarrilaren 15ean. **steilasek argi eta garbi adierazi du, sarri, Heziberri2020 egitasmoarekin daukan erabateko desadostasuna.***

EAEko Hezkuntza Sailak Derrigorrezko Hezkuntzari dagozkion curriculum dekretuek curriculumak ez ezik Balizko Hezkuntza Legeak jasoko lituzkeen aspektuak/edukiak? ere jasotzen ditu.

Dekretuak aztertu eta gero, steilas-ek zera adierazi nahi du:

- HEZIBERRI ez duela LOMCE saihesten, aplikatu baizik. LOMCEri aurre egiteko proiektuak LOMCE ezartzeko balio izango du
- Ekitatearen aurkakoa da. Ikastetxeek izan beharreko " autonomia" izenean, ikaslearen profil ezberdinak ezarriko dira.
- Ez du Hezkidetzari ahalbideratzen. Aldeko adierazpenak egin arren ez du inolako neurri zehatzik proposatzen.
- Ez du euskalduntzea bermatzen. Hizkuntza ereduak betikotzen dira. Ingurune soziolinguistikoak finkatuko du ikasleek lortu beharreko euskara maila ikastetxe bakoitzean. Horrela, ikasle guztiek ez dituzte lorpen adierazle berberak izango. Administrazioak ikasleak elebidun izateko erronkari muzin egiten dio.
- Ez du hezkuntza sistema propio eta justuago bat ahalbideratzen. Euskal Herrian aukera berdintasuna bermatuko duen hezkuntza sistema publiko eta propio bat garatzeko aukera gabe geratuko da berriro

steilas-ek behin eta berriz adierazi du HEZIBERRI 2020 egitasmoa hezkuntza politika neoliberalak ezartzeko eta desberdintasunak areagotzeko tresna paregabea dela. **steilas** HEZIBERRIren aurka mobilizatzen jarraituko du eta beste behin eskatzen dio Hezkuntza Sailari bertan behera utz dezan.